



# GEHIGARRI BEREZIA

## Saritutako lanak

### Ipuinak

1. Saria: Askatasun taupadak. *Garazi Urretabizkaia*
2. Saria: Art. *Miriam Garcia*
3. Saria: Guardasolak. *Ane Etxabe*

### Olerkiak / Bertsoak

1. Saria: Barne sentipenak. *Garazi Urretabizkaia*
2. Saria: Jardin txikiko txantxangorria.  
*Joxemari Lertxundi*
3. Saria: Takk fyrir Reykjavík! *Jone Iriarte*

# Askatasun taupadak

Garazi Urretabizkaia

La Santen, 2001eko martxoaren 8an

Hemen nago, bakardadearen eta heriotzaren arteko mugen itxurazko zehaztasuna guztiz lausotzen den gelaxo honetan, lau pareta hotzez eta barrotez inguratuturik. Baina lehenengoa den eskutitz honetatik argi utzi nahi dizut nire helburua zein den. Ez daukat nire hementengo egoera nolakoa den azaltzeko asmorik, nire pentsamenduak soilik azaleratuko dizkizut; horrela, nolabait bada ere, gertuago senti nazazun. Has nadin, beraz.

Hiru hilabete daramatzazu nire berririk jakin gabe; barkatu. Badakizu beti izan naizela koldar xamarra. Gaur arte ez dut orri zuriaren aurrean jarri eta mundu honetan gehien maite dudan pertsonari hitz bat bera ere idazteko adorerik izan. Eta sentitzen dut. Nire atxilotzarekin nahikoa jasan zenuela uste izan dut orain arte eta bakean uztea hobe zela sinestarazi nahi izan diot nire buruari. Baina gaur iritzi aldatu naiz. Egia osoa kontatzeko garaia iritsi dela ohartu naiz. Bai, arrazoi duzu, engainatuta eduki zaitut nire ondoan egon zaren zortzi urte hauetan. Beti saiatu izan naiz susmoz josituriko zure galdera etengabe nola baitekote itenbide sinesgarri bat ematen. Baina badakit, sarritan, sinetsi ezarren, alferrikako eztabaidak saihestegatik, gaiaz aldatu edota joan egiten zinela, barruan gaiari bueltak ematen jarraitzen duenaren aurpegi pentsakorra jarritz. Inozoa hutsa sentitzen naiz orain, nire aurrean ez zauden honetan, aitorten hau egiten. Inozoa eta koldarra. Baina sinets nazazu: maite zaitudalako ari naiz hau guztia egiten. Finean, errazagoa izango litzateke gaia ez ateratzea eta, besterik gabe, zer moduz nagoen azaltzea. Baina ez da hori nahi dudana. Ez dakidalako zenbat denbora igaroko den berriz ere biok elkartu aurretik, ezta une hori sekula iritsiko den ere. Horregatik, badaezpada, zure bizitzako, ustez, garrantzitsuenak izan diren zortzi urteak benetan noren ondoan eman dituzun jakiteko eskubidea duzula uste dut. Bai, zure susmo guztiak egiak zirela aitortu behar dizut: komando bateko kide naiz duela hamabi urtetik hona. Badakit barrubarruan hasieratik jakin duzun zerbait dela eta, hainbeste maite ninduzulako, onartu egin duzula, nahiz eta

zure printzipioekin guztiz bat ez etorri. Eta eskertzen dizut. Baina ezer baino lehen gauza bat argi izan dezazula nahi dut: asko izan dira hamabi urte hauetan burutu ditudan ekintzak; baina, benetan, ez nuen sekula inor erail. Ez daukat atxilotetaren orduan egotzi zidaten gizon haren hilketan zerikusirik. Eta sinets nazazu, mesedez.

Benoa, horixe zen azken urte hauetan barnea jan didan harra; zurekin benetan nahiko nukeen konfiantza oso hori edukitzea eragozten zidana. Baina jada bukatu da dena, orain badakizu benetan nolakoa naizen, nire alde on eta txarrekin. Eta askoz lasaiago nago.

Gaur bakarrik nago. Azken bi asteetan nire gelakide izan dena, Omar, atzo aldatu zuten gelaz, arrazoi jakinik gabe. Eta orain bakarrik nago. Bakardadea ere ongi etorri zait buruari bueltak emateko. Hiru hilabete erreflexionatzeko denbora nahikoa dela usteko duzu, eta hala da; baina tarte txikiegia da zurekin igarotako une eder oro oroimenera ekarri ahal izateko. Oskarbi dago zerua. Ilargiaren argia bete-betean sartzen da kanpoko mundura, mundu errealerara irtetea galerazten didan leihoaren zirrikitu guztietatik. Orduak ematen ditut leiho horri begira. Paradoxa baten moduan erakusten dit denbora luzez eskuratu, ukitu, sentitu ezin gogodudana. Bera da sarritan, kanpoan zain dudana erakutsiz, hemen egoteko behar besteko indarra ematen didana. Baina, aldi berean, bera da orain gutxi arte nirea ere bazen mundutik bereizten nauena, oraindik bizitza arrunta egitera iristeko denbora luzea itxaron beharko dudala adierazten didana. Lan zaila leihoarena. Hone-lakoetan ohartzen naiz gure barne egoerak zenbat baldintzatzen gaituen. Leihoa beti da bera; ez, ordea, aurrean duenaren begirada, nire begirada. Egunaren arabera asko aldatzen da niretzat hormaren erdian dagoen karratutxo horren zentzua. Gaur bezalako egun ederretan leihoa nire konplize bihurtzen da, nire pentsamenduen konplize, nire askatasunaren konplize. Eta harro sentitzen naiz. Ilargi bete dago gaur. Bete-betea eta zuri-zuria. Beharbada, hori ere izan da mahaian eseri eta idaztera bultzatu nauena. Beti izan naiz oso ilargi zalea, badakizu. Lasaitasuna ematen dit, nolabaiteko babe-

sa. Eta, zuk nola ikusten duzu ilargia Uztaritze alde horretatik? Sarritan galdetzen diot neure buruari ea gutxienez ilargi bera ikusiko ote dugun. Nik berari kontatzen dizkiodanak zuregana helduko ote diren, haren indar eta argitasunaren poderioz. Baina ez dizkit sekula zure gauzak kontatzen, ez dit sekula zutaz hitz egiten... Eta triste jartzen naiz. Ez dakit. Agian, jada ez duzu, garai zaharretan bezala, berarekin hitz egiten; ez dizkiozu zure ezinezko ametsak kontatzen. Begiak malkoz bustirik oroitzen ditut gau haiek; hondartzan udako haize leunaren pean elkarrri opariak egiten pasatzen genituen gau haiek. Zuk niri itsasoa oparitzen zenidan; nik zuri, berriz, ilargia. Eta pozik jartzen zinen, oso pozik. Gorantz begiratu eta irribarre egiten zenuen, berak zure poztasunaren berri ulertuko zuen esperantzarekin. Eta, nolabait, ulertzen zuela zirudien, gaua joan gaua etorri, bere galarik onenak, argitasunik ederrenak oparitzen baitzizkigun gustura egon gintezan. Hiruon artean nolabaiteko paktu bat sinaturik geneukala zirudien. Baina gaur, zuri-zuri dagoen arren, argitasun puntu bat falta zaio. Ez al dizu, jada, ene maitea, nik eginiko opariak lehengo ilusio bera egiten?

Niko

\*\*\*\*\*

Hiru hilabete bere berririk jakin gabe eta orain hone-lakoekin etortzen zait. Komandoko kide dela aitortzen dit... Ezustean harrapatuko banindu, gutxienez... Banekien, bai. Eta aspalditik, gainera. Baina, beno, azkenean aitortu du, eta ez da gutxi. Ongi dagoela ematen du, ongi eta maitemindurik. Ni ez bezala. Eta zer erantzun behar diot nik honi? Orain bi hilabetetik edaria bihurtu dela nire lagun bakar, konplize bakar? Eguna edaten pasatzen dudala nire penak ahanzteko? Hiru hilabetez bere berririk eduki gabe egon ostean sentipenak aldatu ez zaizkidala? Hori guztia idatziko nioke. Egia osoa kontatu. Baina ezin dut. Nahikoa ariko da sufritzen nik ere gehiago sufriarazteko. Barruan dagoen artean gure arteko guztiak berdin jarraitzen duela sinestarazi behar diot. Irteten denean hitz egingo dugu... Beno, har dezadan vodka botila eta has nadin idazten, zerbait txukuna idazteak luzerako emango dit eta...

Uztaritzen, 2001eko martxoaren 17an

Poz gairiazait hiru hilabeteren ostean dena ondo doakizula jakitea. Ez naiz hasiko lehenago idatzi behar zenuela esaten, ezta egin didazun aitopenari buruz ze pentsatzen dudan idazten ere. Azken batean, badakizulakoan nago.

Nik ere orduak igaro ohi ditut leihotik begira, airean noraezean dabilen hegatziren batek zure berriren bat noiz ekarriko zain. Baina niri ere ez dizkit inork zure gauzak kontatzen. Nik ere nostalgiaz oroitzen ditut zurekin hondartzan igarotako une gozo haiek. Bai hondartzakoa, eta baita gainerako guztiak ere. Zure alboan egun denak baitziren ezberdin. Baina, orain, zure gisan, ni ere bakarrik nago, zurekin elkartzeko ordua noiz iritsiko zain. Eta beldur naiz. Gehiago inoiz elkartuko ez ote garen beldur. Betiko Niko topatuko ez ote dudan beldur. Ez al zaizu sekula hori burutik pasa?

PD: Maite zaitut

Nora

Botila erdia hustu dut dagoeneko eta eskuan dudan bolalumak eta nire pentsamenduek ez dute konpas berean dantzatzen. Laburra izan naiz, bai. Laburra baina, aldi berean, zuzena. Ez dakit zer gehiago idatzi, ez dut erabateko maitasun hitz faltsuetan guztiz erori nahi. Botilari azken tragoa edan eta ordulariari begiratu diot. Kosta bazait ere, gaueko hamarrak direla ohartu naiz. Larunbata da, parranda eguna. Ohartu eta berehala, diru apur bat eta autoko giltzak hartu eta kalerantz noa. Ilusio handirik egin ez badit ere, eskutitza iritsi zaidala ospatzera aterako naiz, ea taberna zuloren batean alkoholarena ez den beste kontsolamendurik topatzen dudan...

\*\*\*\*\*

La Santen, 2001eko martxoaren 28an

Hiru aste ere ez dira igaro idatzi nizunetik eta jada heldu zait zure erantzuna. Harrituta utzi nau, egia esan behar badut. Harrituta, eta, aldi berean, baita kezkatuta ere. Ez dirudi kartzela hau inguratzen duen zortzi metroko pareta sendo honetatik kanpora gauzak oso ondo doazenik. Ez zuri, behintzat. Zer gertatzen zaizu? Triste antzera nabari zaitut... Baina, beno, oraindik maite nauzula ohartu naiz gutxienez eta horrek, pixka bat bada ere, lasaitu egiten nau.

*Ez dakit zehazki zergatik, baina atzoko arratsaldea ezberdina izan zela ohartzen naiz; agian, pentsatzeko, oroitzeko, imajinatzeiko denbora larregi izan nuelako. Eta honako hau izan zen nire koadernotxoan idatzi nuen gogoeta: batere zentzurik gabeko bat, bi, biru.. sentimendu faltsu pilatu ostean, guztia horrela izango zela bauteman zenuen, maitasunak ez zuela ezer gehiago edukiko. Hainbat saiakerek zure pentsamendu negatiboenak baieztatzen zituzten. Airean iltzaturik geratzen ziren sentimendu bezez josiriko maitasun hitzak, nabi zenituenean hartu abal izateko. Baina, zer gertatu zen*

*Gebigarri berezia. Euskaraz gazte 13. literatur lehiaketa*

*martxoko arratsalde bartan? Zer eduki zezakeen ezberdina saiakera berri horrek? Eta proba egin nuen, egin genuen. Hasiera-basieratik samurtasuna nabari zen estaltzen gintuen atmosferan; gauza ongi hasi zen, beraz. Pixkanaka, zure presentzia tartea bilatuz ziboan nire bizitza xumean, geroz eta handiagoa, geroz eta garrantzitsuagoa. Lehenengo, begirada bat; ondoren, laztan bat; beranduxeago, muxu bat... Horrela, tartea guztiz zabaldu eta nire bizitzaren zati izatera iritsi zinen arte. Eta ez dut besterik behar bizirik irauteko, soilik zure muxu goxoak nire masailak kitzikatzen; soilik gure xuxurlak belarrian, bitz egiten dibarduen eta inork entzuten ez gaituen jende multzoan murgilduta gaudenean. Soilik zu eta ni, isiltasunean maitatzen...*

Horixe zen, bada, bart zutaz oroitzean burura etorri zitzaidan guztia. Badakizu? Gaur ere pozik sentitzen naiz, nire pentsamenduak ordenatu eta nahi dudana idazteko gai naizelako. Lehenengo hilabetean gogoetak ziren ni alde batetik bestera mugitzen nindutenak, nik jakin gabe nora eramango ninduten, zer pentsatuko nuen hautatzen utzi gabe. Izugarritzko nahaspilan etortzen zitzaizkidan zerikusirik ez zuten gauza guztiak burura, inolako ordenarik gabe, zentzurik gabe. Une jakin batean zutaz pentsatzen nuen eta, jarraian, amaren patata tortillaren zaporea etortzen zitzaidan burura, edota ikastolako lagun zaharren bat, edota kaniketean jolasean emandako orduak, edota ohe azpian behin aurkitu nuen armiarma... Edozer. Baina gaur ez, gaur ni naiz nire pentsamenduen jabe; ni nire buruaren jabe. Eta zu zer, oroitzapenen ozeanoan kapitain ala naufragoz zara?

PD: Jada ez nago bakarrik, Sebastian izeneko frantses bat dut gelakide berri. Jatorra ematen du, elkarriketari eusteko gai behintzat bada... Kontatuko dizut.

Niko

\*\*\*\*\*

#### 2001-03-18. NESKA GAZTE BATHILDA AUTO ISTRIPU BATEAN

Nora Esnal, 24 urteko gaztea, atzo gaueko 22:30 aldera zendu zen, gidatzen zihoan autoa Uztaritze eta Kanbo artean dagoen amildegitik behera erori ostean. Jendameriek adierazi dutenez, neska gaztea gehiegi edanda zihoan eta ezin izan zuen abiadura handian zerraman autoa garaiz balaztatu. Sorospen taldea berehala gerturatu zen arren, ezin izan zuten ezer egin Noraren bizitza salbatzeko, hartutako kolpearen ondorioz momentuan hil baitzen.

\*\*\*\*\*

La Santen, 2001eko ekainaren 14an

*Gebigarri berezia. Euskaraz gazte 13. literatur lehiaketa*

Bi hilabete eta erdi igaro dira zure lehen eta azken eskutitza jaso nuenetik. Azkena idatzi nizun zerbaitek min egin al zizun? Ez dut uste... Agian, jada nitaz ahaztu zara, ala okerrago dena, nitaz ahaztu nahian zabil-tza. Edo, agian, ez didate zure gutunik eman nahi. Bai, hori izango da. Azken aldian ez dira gutun asko iristen ziega hauetara. Ditzosozko kontrolak... Bai, hori da, ziur naiz erantzun didazula. Baina lasai, noizbait, gutxien espero dudanean, iritsiko zaizkit zure esku leunak idatzi dituen hitzak.

Ez dakizu zenbat oroitzen naizen zutaz. Une oro batera geundenean jarraitzen genuen ordutegia datorkit burura; horrela, momentu bakoitzean zein tokitan zauden eta zer egiten ari zaren imajina dezaket. Ze itxura izango ote duzu orain, ene Nora maitea? Betiko ile beltz eder eta luzeak bere horretan iraungo al du? Orduak ematen ditut ene bihotzaren jabe zaren horri aurpegi edota itxura bat eman nahian. Beti gustatu izan zaizu estiloz asko aldatzea; denbora jakin bat igaro ostean, beste pertsona bat izatera pasatzea. Eta nirekin egon zarenean, behintzat, lortu duzula esango nuke. Ea zure hurrengo eskutitzean oraingo argazkiren bat bidaltzera ausartzen zaren...

Bart pentsatzen egon nintzen. Ze arraroa, ezta? Izugarritzko paradoxa batean murgildurik nagoela iruditzen zait. Parisen nago, maiteminduen hirian, eta inoiz baino maitasun gutxiago senti dezaket inguruan. Beti izan dut amets argien hiri hau bisitatzea. Txikia nintzenez, amak handitan zer izan nahi nuen galdetzen zidanean, Parisko margolari bohemio izan nahiko nukeela adierazten nion, familia osoaren harridurarako. Eta begira, azkenean, nola bukatu dudana. Parisen, bai; baina honek ez dauka hiri honi buruz nituen idealekin zerikusirik. Pareta hauen artetik ez dut Montmartre auzoko artistek hedaturiko kutsu bohemioa sumatzen, ezta Eiffel dorreak iluntzean hiri osora zabaltzen dituen argien izpirik ikusten ere. Baina, Sebastiani esker, amets egin dezaket. Begiak zabalik nahiz itxirik izan. Bere istorioekin maiteminduen hirian barrena murgil naiteke, betidanik ezagutuko banu bezala, bere kaleak zeharkatuz, izugarritzko glamourra duten museo eta erakinak bisitatuz, txikitatik gogoko izan ditudan artisten koardoak aztertuz... finean, nire ametsa betetzen ari naizela sentituz. Eta horrek ere indarra ematen dit. Ikusten duzun bezala, ez da egia hemen bizirik irautea izugarri gogorra dela dioen mito hori. Ni, behintzat, oraingoz bizirik nago, eta indartsu, gainera. Egunerokota-

suna apurtzen duten zertzeladak xerkatzean dago gakoa. Gauza berriak esperimentatzean. Une oro min ematen dizuten gauzetan ez pentsatzean.

Jada iritsi da argiak itzaltzeko unea; idazteari utzi beharko diot, beraz. Banoa, banoa ohera, Sebastianen istorioekin gozatzera, irudimenari askatasuna ematera... Eta, nola ez, Nora, ezeren gainetik, zurekin pentsatzera.

Niko

\*\*\*\*\*

La Santen, 2001eko abuztuak 22

Gaur ere heldu da eguneko pentsamenduak idazteko unea. Benetan atsegin dut nire eguneroko hau hartu eta burura datorkidan edozer idazteko askatasuna dudan une hau. Nork daki, beharbada kaiola honen barnean arnasbide bat, askatasun puntu bat ere badudala gogorarazten didalako; munduarentzat preso nagoen arren, nire pentsamenduekin aske naizela aditzera ematen didalako. Baina gaurkoan askatasun hori da kezkarra bultzatu nauena. Ez dakit batzuetan ez ote diodan buruari gehiegi pentsatzen uzten, gehiegi sentitzea baimentzen. Azkenaldian barnean biraka darabilkidan zerbaite plazaratu asmoz hartu dut gaurkoan eskuan dudan bolaluma, ipini naiz gaurkoan beharrezkoa dudanean idazten dudana koadernotxo honen aurrean. Eta hasi egingo naiz.

Nolabaiteko agonian murgildurik igaro ditut azken egun hauek. Ez dakit; beharbada, beldur naizelako; beharbada, ez dudalako gertatzen ari zaidan horretan pentsatu nahi eta, aldi berean, ezin dudalako gertatzen ari zaidan hori burutik kendu. Bost hilabete igaro dira Noraren eskutizik jaso ez dudala. Ez dut bere berririk, ez dakit zerbaitek min eman dion ala ez, ezta jada beste pertsonaren batekin egongo den ere... Baina ez da hori kezkatzen nauena, azken batean berak nire bihotz barruan behintzat presente jarraitzen baitu. Sebastianek nauka nahasturik. Lau hilabete inguru daramatzat berarekin eguneko 24 orduak konpartitzen, une oro bere ahotsa entzuten, bere begirada sarkorra kontentplazten... Eta ezin dut burutik kendu. Ez dugu sekula eztabaidarik izan, ez gara sekula elkarrekin haserretu. Ez dakit... nahasturik nago. Egunero zain egoten naiz goizeantxirrinak noiz joko, jaiki eta bera ikusteko. Gogoko dut bere begirada, bere ahotsa, bere izaera alai eta jatorra... Ezin dut zein jatorra naizen esaten didanean lotsatzea saihestu, ezta begietara begiratzen didanean barrenak buelta ematea ekidin ere. Maitemintzen hasia

ote nago? Ala sentipenak nahasten ari ote naiz? Ez dakit, eta beldur naiz. Aspaldian nozitzen ez nuen sentipen hau urrunago joatearen beldur, Sebastianekin dudana harremana aldatzearen beldur, Nora ahaztera iristearen beldur...

Ai, ilargi maitea! Esadazu, arren: zer egin dezaket? Norari nire sentipenen berri eman behar ote diot? Ala, agian, Sebastiani egia osoa aitortu? Denborak ideia bakoi-tza bere tokian jartzea espero dut...

\*\*\*\*\*

La Santen, 2001eko urriaren 14an

Ia urtebete igaro da hegan egiteari utzi eta kaiola barnera sartu nindutenetik. Orain badakit nola sentitzen diren etxean maskota gisa edukitzen ditugun txoriak, inolako gupidarik gabe zooetan barneratzen ditugun animaliak; gizakion gozagarri izateko funtzio soilarekin, aske bizitzeko eskubidea kenduz, izaki izaera kendu eta plazereko objektu bilakatuz. Gu ere antzeko egoeran gaude. Barrotean atzean giltzapeturik, une oro pasilloan bueltaka dabiltzan zaindari axolagabeen begiradapean. Nik beti bizkarra eman ohi diet, beren begiradekin kutsa ez nazaten, beren irainekin indarririk kendu ez diezadaten. Ez naiz hona inoren gozamenerako objektu, inoren jostailu pertsonal izatera etorri. Ezta gutxiago ere. Eta ez dute nirekin beste askorekin lortu dutena lortuko; ez naiz hain erraz eroriko, ez horixe.

Gaur egun berezia da, 25 urte betetzen dituzu eta ez nago zure ondoan. Ai! gutxienez une batez ikusi ahal izango bazintut! Goxo-goxo laztanduko nizuke ilea, begietara begiratuz, beste eskuarekin belarritik tira bitartean. Ondoren, gitarra hartu eta zorionak abestuko nizuke, hainbeste gustatzen zitzaizun ahots leuna jarritz... Baina utz diezaiodan, behingoz, amesteari. Ni gabe igaro beharko duzu oraingoan urtebetetze eguna, familia osoaz inguratuz, lagunengandik babesean. Ziur naiz ederki pasako duzula, maite zaituen hainbeste jendez inguratuz, opariak jaso eta jaso... Agian, harritu egingo zara hitz hauek irakurtzean. Badakizu niri beti iruditu izan zaidala urtebetetze egunak faltsukeria kutsu handiarekin estalirik daudela, Gabonak bezalaxe. Jende guztiak zorionduko zaitu, mundu guztiak emango dizkizu bi muxu, baina jasotako laudorio eta laztan guztietatik oso gutxi izango dira benetan sentituta emandakoak. Baina ikusten duzu: hemen barruan zaudenean, zure alderik sentiberena ere azalera irteten da, nonbait... Due-la hilabete igaro zen nire urtebetetze eguna, eta ez nuen zure zorion gutunik jaso. Egia esan, min eman zidan,

*Gebigarri berezia. Euskaraz gazte 13. literatur lehiaketa*

zugandik hori gutxienez espero bainuen. Baina tira, beste mila gauza izango dituzu buruan nire aurretik eta uler dezaket.

Atzo abokatua etorri zitzaidan bisitan eta laster Euskal Herrira eramana izateko aukera dezente dauzkadala esan zidan. Gogor ari da lanean, eskertzekoa da benetan. Baina beldur naiz, ez dut Sebastianengandik banandu nahi. Bai, adiskidetasun estua lortu dut berarekin, benetan estua... Baina ez izutu, mesedez. Hainbeste denbora elkarrekin igarota, hori ere normala da, azken finean. Ez duzu uste batzuetan zerbait esan nahi eta gehiegi korapilatzen garela? Gauza naturalak berez, besterik gabe, esateak arazo asko saihestuko lituzke; baina, beno, gizakiak gara eta normala da esan behar den horrek hartzailearengan izan dezakeen eraginean pen-

tsatu ostean, isilpean gordetzen jarraitzea. Barkatu, urdu jarri eta burua beste norabait joan zait; egunen batean azalduko dizut...

Beno, amaitutzat eman beharko dut gaurkoa, zu gehiago nahastu baino lehen. Emango dizut Euskal Herrira eramango nauten egunaren berri, bertan egonda, bisitan etortzea ere askoz errazagoa egingo baitzaizu. Imaginatzen al duzu astean behin ikusteko aukera izatea? Desiratzen nago, kristal lodi bat artean badago ere, zure begirada gardena ikusteko, zure irribarreak gozatzeko, zure ahotsa aspaldi ez bezala nire belarrietan barna sumartzeko... Laster helduko da eguna. Laster, oso laster... Maite zaitut."

Niko

# Art

## Miriam Garcia

*Mil gracias de Dios* esaten du hoteleko ate ondoan eserita dagoen eskaleak zerbait botatzen diozun bakoitzean, xentimo bat bada ere. Aurpegian sakon sartutako begirada hura infinituan du galdua gizonak. Hanka bat luzatua du, galtzerdi zulatuak ikusten uzten dituen zapataren punta gorantz duelarik. Hankaren ondoan ardo botila huts bat, kolpe batez botata. Garai batean traje batena izan zen txaketa bat darama soinean, eta azpitik ezer ez. Hanketan txandal zahar bat, urdin iluna, alboan bi marra horirekin, zikintasunaz ia nabari ere egiten ez direnak. Urteak moztu gabe daramatzen bizarrari esku batez heltzen dio, baten batek lapurtuko dion beldurrez bezala, eta beste eskuarekin txakurraren uhalari heltzen dio. Baina uhalaren beste aldean ez dago txakurrik, eta badirudi eskalea ez dela horretaz ohartu. Pena eman dit eta billete bat bota diot eskatzeko erabiltzen duen latorrizko potora. *Mil gracias de Dios*.

Kalean jende dezente dabil, eta trafikoa ugaria da. Hiri usaina inoiz baino indartsuago dator nire sudurretik barrena. Eraikin altuen artean zero zati bat agertzen da, eta, ikusten denaren arabera, egun eguzkitsu bat ari gara izaten. Etxean banintz, txorien kantuak entzungo nituela pentsatu dut; eta hondartzan, olatuak.

Baina ez, Madrilen nago, Gran Vian behera, hilabete hauetan zehar nire lantokia izango denerantz. Izan

ere, nahiz eta lanbidez ez aldatu, ezta lankidez ere, ez dut lantoki finkorik.

Txikitan *zer izan nahi duzu banditan?* galdetzen zidaten bakoitzean, *Antzerkigile!* esaten nuen. Antzerkiak idaztea zen nire ametsa. Eta milaka gidoi idazten hasi nintzen, baina bat bera ere ez zen orrialdetik pasatzen. Amak luma estilografiko bat erosi zidan, eta koaderno berezi bat, oso polita, ea inspiratzen nintzen. Eta bai. Behin, bi orrialde idatzi nituen. Baina, hiru egun igarero ondoren, berriz irakurri nituenean, zakarretara joan zen koaderno, eta luma ez, garestia zelako. Hala ere, ez nuen etsi eta, ordenagailua ekarri zidatenean, pozpozik sentitu nintzen, bertan idaztea errazagoa izango zelakoan. Eta hiru orrialde idatzi nituen. Eta ordenagailua ez zen zakarretara joan, baina bertan geratu zen, itzalirik, berriz ere saiatu nintzen arte.

Hamasei urte rekinkonturatu nintzen ez nuela horretarako balio, baina hamazazpi bete arte ez nuen etsi. Azkenean, idatzi nuen gidoi oso bat, eta ez zitzaidan hain beldurgarria iruditzen; beraz, herriko antzerki taldeari eramanez nion ea antzeztu nahi zuten. Ostikoka bidali ninduten lokaletik, ea hori eramateko lotsarik ez nuen galdezka.

Eta, orain, antzerki bateko zuzendariaren laguntzaila naiz.

Luis izena du zuzendariak, eta Rikardo, Jose Luis eta German, antzerkiko aktoreek. Urteak daramatzagu, ez Espainia osoan soilik, Hego Amerikan barrena ere birak egiten. Txiletik etorri eta Madrilén jarri gara hilabete batzuetan, eta, ondoren, azkenean, etxera itzuliko gara. Itsasoan bainatzeko gogo izugarria dut, eta belaontzian nabigatzeko.

Egunen batean ni bakarrik obra bat zuzentzeko gai izango naizen esperantza dut; baina ez gehiegi, gidoiekin pasatu zitzaidana ikusirik. Hala ere, uste dut honetarako talentua badudala.

Iritsi naiz, azkenean, hainbat metro bidaiaren ondoren, Tirso de Molina geltokian jaitsita, Dr. Cortezo kalean dagoen Figaro antzokira. *Berandu zatoz* —dio Luisék serio— *baina barkatzen dizut*. Ez dirudien arren, umore fineko gizona da Luis. Nik hainbeste maitatzen nituen komedia horietako bat idazteko oso gai, baina nahiago omen du zuzendaritza lana. *Diru faltan nagoen* idatziko dut *gidoiren* bat esaten du beti, eta zaplazteko bat emateko gogoia sartzen zait horrelakoetan.

Jose Luis eta Rikardo sesioan ari dira, Lope de Vega antzokian aurkezten den obraren kalitatea dudán jarriz, eta, bitartean, German gaur jantziko duen trajea aukeratzén ari da. Entsegua hastear dago eta ordu batzuk beranduago jendez gainezka egongo den publikoko eserleku batean jarri naiz begira. *Art* izena du obrak. Jada buruz dakit gidoia.

*Mi amigo se ha comprado un cuadro de 500 mil euros. Blanco*. Horrela hasten da, eta hiru gizonen arteko adiskidetasuna kolokan jartzen du ekintza horrek. Ona da. Yasmina Reza izan nahiko nuke, horrelako gidoiak idazten jakiteko.

Entsegua bukatu eta bi ordu geratzen dira eguneko lehen emanaldia hasteko. Badakit zeregin: betikoa. Germanen kamerinora joan eta han dut zain; tripontzi batek txuletari begiratzen dion bezala begiratzen dit. Atea krisketaz ixten dut, inor sar ez dadin. Gerritik heldu eta mahai gainean jarriz, arropa kentzen hasten zait. *Eskerrik asko gona jartzeagatik* —dio—; *horrela, errazagoa da kuleroak kentzea*. Ez daramatzat, *ordea* —diot, eta begirada maltzurraz begiratu eta irribarre egiten dit, *gaiztoa zara* esanez bezala. Izerditan, arnasestuka, nik eskuekin bere ipurmasailéi gogor helduz eta berak nire ilea nahasiz gabiltza. Mahaiak paretaren kontra soinua egiten du, eta lurrera botatzen gara. Hotzak daude baldosak, freskoak, eta ongi sartzen da freskotasan hori. Azala lurrean itsasten da, baina laster jartzen da irris-

takor, izerdiaz bustitzean. Pareta osoa hartzen duen ispilura begiratzen dut. Beste aldean bi pertsona daude, lurrean botata, biluzik, zakarki mugitzen, haragikeriatan. Germanen bizarrak gorputz osoan egiten dizkidan kilimekin bihurritzen ari naiz lurrean, besoak luzatuta, algaraka.

Isiltasunean jantzi gara gaur ere, irribarretsu, gure azken hilabeteak direla jakitun. Obra errepresentatzen bukatzen dugunean, hilabete batzuk barru, bakoitza bere etxera joango da. Bera Oviedora, emaztearengana; eta ni etxera, itsasora.

Rikardék susmoak dituela iruditzen zait, baina badakit ez duela ezer komentatuko, koldar hutsa baita, bere pertsonaia bezala. Hala ere, mutil ona da; pixka bat gizajoa, baina ona.

Bihar, astelehena. Astelehenetan jai izaten dugu. Eta, ospatzeko, bostok afaltzera joaten gara. Beste inor ez da animatu gaur ere. Aurreko asteetan Meson del Bacalao, Meson del Champiñón eta Las Cuevas de Luis Candelas probatu ondoren, Meson de la Tortillara joango gara gaur. Koba bat bezalakoa da hau, ilaran dauden gelatxoz osatua, eta pareta berdeetan Los Picapiedraren irudiak. Gelatxo bat dugu guretzat bakarrik; gainera, azken gelatxoa da. Gizon bat dabil akordeoi batekin abesten. Mesoi honetan akordeoia jotzen hogeí urte daramatzala kontatzen digu. Jatorra da, eta baita bere bibotea ere.

Hamabietarako mozkor eta itsu gaude denok, baita akordeoiko tipoa ere, Migel izenekoa. Mieltxo deitzen diogu denok. Jada ezin du akordeoia jo, erori egiten baita. Ke eta algara artean beste ardo pitxer bat ekartzén digu zerbitzariak, bost minututan hutsa dagoena. Mesoia gure kontura aberastuko den kontuarekin beste pitxer bat eskatzen dugu; *azkena, oraingoan* diogu.

Zazpi pitxer beranduago, eta bakoitzak berrogeita hamar euro pagaturik (edan dugunerako merkeegi, susmagarria), balantzaka atera gara Meson de la Tortillatik, Picapiedra familiaren begiradapean, itxi egin behar dute eta. Orain sei gara, Mieltxo ere geurekin elkartu da.

Habana Café. Kubatar musika jartzen dute bertan. Giro polita dago dantza pixka bat egiteko, baina gu ez gaude dantza egiteko kondiziotan.

Gau osoa tabernaz taberna igaro ondoren, goizean iritsi gara hotelera. Bakoitza bere gelara joan da eta ni Germanenera; baina, arropa kentzen hasi baino lehenago, lo hartu du. Komunera noa, metabolismoak digeritu ezin duen gehiegizko alkohola botatzera; eta bal-

*Gebigarri berezia. Euskaraz gazte 13. literatur lehiaketa*

koira ateratzen naiz, gau osoa kulerorik gabe pasa dudala eta horrela segitzen dudala ohartu gabe.

Fresko egiten du kalean goizeko ordu hauetan. Baina, gelara sartzean, agobiatu egiten naizenez, balkoian bertan geratzea erabaki dut. Gela kutrea da, paretetan loretxodun paperarekin, eta hainbat koadro, zein baino zein itsusiago. Oheko bururdia arrosa da, arrosa pastela edo delako hori. Eta German hor dago, izara artean,

Zoriontsu naiz oraintxe, atzean dudan tipoaren zurrungak entzuten, gidoirik idatzi gabe, eta egunen batean obra baten zuzendari izateko esperantzaz. Hila-

bete batzuk barru, abentura hau bukatzen denean, pixka bat deskantsatu eta beste bat hasteko prest egongo naiz, zuzendari berriarekin (agian, ni neu) eta aktore berriekin. Baina, oraingo, zoriontsu naiz hauekin, Luis, Rikardo, Jose Luis eta Germanekin, eta datozen hila-bete hauek ahal diren mantsoen pasatzea nahi dut. Edo ez pasatzea, agian. Denbora geratu nahi dut, Gran Vialko hotel honetan, ohean etzanda, ezkonduako gizon baten bizarra ukitzen, bere zurrungekin barrez, eta pareta gorridun komunean botaka. Gau hau eternoia izatea nahi dut. Baina, azkenean, obra hau bukatu egingo da.

# *Guardasolak*

*Ane Etxabe Arruti*

Alfredok nahiago izan ohi zuen euria egitea. Ez bakarrik uda zelako, eta udako euriak usain, horrela, espezial bat izan ohi duelako; baizik eta, horrela, Mariari arrimatuago joango zelako kalean zehar. Noski, euritik babesten zituen aterkiaren diametroak ere zerikusi handia izango zuen honetan. Alfredok beti pentsatuko zuen ordea, nahiz uda edo udazken izan, nahigo zuela aterkia txikia, ahalik eta txikiena, izatea.

—Horrela arrimatuago paseatzeko.

Baina beti pentsatu arren, ez zen inoiz ausartuko halako atrebentziarik Mariari esatera. Baita ere askotan pentsatuko zuen pena zela aterki eta euri beharra izatea Maria gertu antzera izateko. Haatik, Alfredo pozik izango da honekin; sobera izango du.

Azaldu beharra dago, hala ere, Alfredok kasualitate hutsez, urte batzuk lehenago, bere aitak aurkitutako fruta-dendako lana hartu izan balu, hau horrela gertatzea ia ezinezkoa izango zela. Horrela, kasualitate gordinez, fruta-dendako lana onartu izan balu, gaur bertan Alfredo haserre egongo litzateke gerezien gizonak gerezi txikiegi eta ustelegiak saldu dizkiolako. Eta asko-asko jakingo luke laranja klaseez: Valentziako laranja eta andaluzak eta Murtziakoak bereiziko lituzke. Baina ez luke aterkien inguruko xehetasun bat bera ere jakingo.

Ez ziren, ordea, egunero ateratzen paseatzera. Alfredok pribilegio hori oso gutxitan izango zuen. Baita Mariak ere. Zorionez, biak sentitzen baitziren pribilegiatu. Ezin baita esan, bietako inork, horrela, bizitza interesgarria zuenik. Izan ere, oso jende gutxik aldatuko zukeen bere bizitza propioa bi hauenengatik (militarrak eta bestelako pobre emozionalak alde batera utzita). Baina oso kontent egongo lirateke ateratzen ziren aldiro.

\*\*\*\*\*

Abuztuko egun arrunt batean, Klara bere etxean egongo da. Ez da ziurretik jabetuko bere ahizpa gaztea zertan dabilen. Egia esan, Klara ez da pertsona ona izanen, beti ere oraingo premisapean juzkatzen badugu. Esango genuke, apur bat zehazteko, Klara, egozentriko, narzisista eta berekoia dela. Eta ilegorria ere bada Klara.

Inork baieztatuko luke Klara bere munduan bizi dela, horrela, izaki bakoitzak bere mundu propio eta pertsonala balu bezala. Baina hau baieztatu duen hori egongo da okerren, izan ere, Klara guztion mundu inpersonal berean bizi da. Baina Klarak ez dio inori kasu gehiegirik egingo. Ezta bere ahizpa gaztea etxera iristean ere. Ez du berarekin hitz egin nahiko.

\*\*\*\*\*

Martinek azkazalak jaten zituen. Urtero, urte berria hastean, bere buruari joera lotsagarri hori uztea propo-



satuko zion. Horretarako, baratxuri mordoska bat erosiko zuen, azkazaletan emateko. Horrela jango ez zituelakoan. Baina Martin ez zen inoiz akordatuko baratxuria oso gustuko zuela. Beraz, urtarrilaren 3rako bere intenzioa alde batera utziko zuen. Seguru aski, baratxuria-rena apropos egingo zuen arren. Eta horrela urteetan.

Urtero saiatuko zen, Martinen benetako bokazioa ez baitzen guardasolak saltzea, gitarra jotzea baizik. Talde bat osatu nahi izan zuen. Baina, noski, ezin izango zuen gitarrarik ondo jo azkazalik gabe. Beraz, amak euritakoak saltzen jarri zuen dendan. Horrela esan zion. Guardasolak saltzeko ere behar da baten bat, ez da dena musikero eta dena arkitekto. Arkitekto eta musikoak aipatu zituen Martinen amak.

Eta horrela hasi zen Martin aterkiak saltzen.

\*\*\*\*\*

Abuztuko egun arrunt bat zen hura. Beno, arrunta izango litzateke, agian, eguraldi ona egin balu. Baina ez zen kasua. Xirimiria ari zuen, mespretxu gehiena sortzen duen euri mota euri mota guztien artean. Batez ere paseatzaile eta hondartzako tabernarien artean. Baina Alfredo erabat kontentu atera zen etxetik, aterki konpondu berriarekin.

Alfredo ren paseoak ez ziren, ordea, helmugarik gabeko paseoak. Paseo oso definitu eta zehatzak ziren, ia-ia edozein pertsonak zaborra ateratzean egiten duen ibilbidea bezain neurtua. Baina beste zeregin espezial eta inportante bat zuten: Mariari aterki berri-berri eta konpondua eraman behar zion. Eta betiko aitzakia gisara, aterkiaren konponketa egokia ziurtatzeko 100 edo 38 metroko paseo bat emango zuten.

Esan bezala, berebiziko inportantzia zuen abuztuko egun hartako Alfredoren zereginak.

\*\*\*\*\*

Kuriosoa da zenbat gauza diren oso-oso inportanteak, eta zenbat ez horrenbeste. Eta kuriosoa da, baita ere, nola izan daitekeen pertsona batentzat aterki bat entregatzea hainbat presidenteren bilera presidentzial bat baino milaka, milioika aldiz garrantzitsuagoa.

\*\*\*\*\*

Martinek ukelele bat erosi zuen. Ukelele bat erosi zuen Martinek, ez soinu exotiko edo arraroak gustuko zituelako, baizik eta aterki artean kamufla zezakeen gitarraren antzeko instrumentu bakarra zelako. Ez baitzen komeni amak lan orduetan musikokeriatan ikusterik. Horrela esaten baitzion. Orain ere musikokeriatan! Eta guardasolei buruzko hainbat instrukzio ematen hasiko

zitzeaion. Handienak atzean jartzeko, eta loratuak ezkerretan, eta egurrezko eskulekudunak han, lehengo-aste-an-arreglatutako-apalean.

Baina Martinek bazuen hura baino buruhauste larriagorik. Ikaraz zegoen, amak noiz bere asmoak asmatuko. Izan ere, hilabeteak zeramatzan inoiz inork egindako bekatuak larriena burutzen. Hainbesteko bekatua, non Martin kristau, musulman edo judu balitz, kontzientziak berak infernura bidaliko lukeen, azken juzizioaren zain egon gabe.

Hala ere, Martinek jarraitu egin zuen. Eta, astero bezala, euritakoak ostuko zizkion amari dendatik. Noski, kontuan hartuta ukelelearen aldekoak ezin zituela hartu. Bestela, bekatu dobleaz konturatuko baitzen ama.

\*\*\*\*\*

Abuztuko egun batean, Maria oso gustura zegoen. Bereziki kontentu. Pozik. Apur bat lebitatzen. Eta ez da zaila izanen horrelako zoriontasuna ageri duen inork zein duen arrazoia jakitea. Ez da izango zerbait dibino eta zenutiarrak, horrela kasualitatez, irri zabal bat marraztu diolako, bi aukera baitaude halako egoera baterako: batetik, bere bizilagunen baten katua, auto batek harrapatu ostean, ospitaletik etxera etorri izana; edo, bestetik, ba, norbaitez gustatuta egon, eta norbait hori aterki bat entregatzera etxera etorri behar izatea.

Arrazoia, noski, bigarrena izango da.

\*\*\*\*\*

—Banoa Klara...

—...

—Segituan etorriko naiz, buelta bat ematera noa. Eta lanpernak erostera.

—...

Noski, astero bezala, Maria lanpernarik gabe bueltatuko zen etxera.

\*\*\*\*\*

Klarari ez zion batere axolako bere ahizpa gaztea noiz, nora edo zertara zihoan. Xehetasun gehiago emateko, erabat berdin zion. Nahikoa zuen berearekin. Orrazten, apaintzen, pintatzen, prestatzen pasatzen zuen eguna.

Hainbat medikurengana eramana zuen Mariak Klara. Baina ez zuen gaixotasun ezagunik. Askok ikasi eta ikusitako medikuek ere ez zuten ideiarik Klarari gertatzen zitzaionaz. Beraz, ezer ez zitzaiola pasatzen ondorioztatu zuten.

Baina askok —eta baita Mariak berak ere, askotan— uste zuen Klarak ez zuela pentsatzen. Bere mundu propio, pertsonalarekin nahikoa zuela. Eta kanpokoaz ez

*Gebigarri berezia. Euskaraz gazte 13. literatur lehiaketa*

zela gehiegi konturatzen.

Hori ez zen egia, ordea. Klarak ez zuen asko hitz egingo, ez zuen asko esango. Ez zuen abestuko. Baina ez nahi ez zuelako. Egun batez hala erabaki zuen, berak. Ezer oso tragikorik pasatu gabe, gainera. Mariak pena hartzen zuen horrenbeste orrazten, apaintzen, pintatzen, prestatzen ikusten zuenean Klara. Klarak ere bazekien hori. Baina berak horrela nahi zuen. Eta balkoian jartzen zen, behin ondo orraztu, apaindu, pintatu eta prestatutakoan. Ez inor ikusteko esperantzaz. Denek bera ikus zezaten asmoarekin baizik.

\*\*\*\*\*

Martin egun haietan azkazalak gero eta maizago jaten zituen. Agian, jadanik iraileko egun bat zelako, eta urte berriaren hasierako proposamen guztiak, beti bezala, ondo ahaztuak zituelako. Erabat urduri zebilen. Geroz eta beldur handiagoa zuen bere bekatua amak argituko zuelakoan.

Gainera, nahigabeko harrokeriaz, azken aldian gero eta aterki gehiago osten zituen. Orduan, etxera joaten zen korrika, edozein aitzakiapean. Aterkia dotore bildu, paper politen batean, eta atean uzten zion. Eta handik ordubete edo gutxiagora, berak aterkia jasotzen zuen. Ez zion inoiz adieraziko izenik. Ez zekien, sikiera, erabiltzen zituen ala ez. Baina ez zuen beste ezer oparitzeko, eta horrekin konformatu beharko.

\*\*\*\*\*

Mariak eta Alfredok paseoa amaitu zuten.

—Eskemik asko, ba. Badakizu, lehengo eguneko haize boladek... Ia neu ere eramane ninduten.

—Ez da ezer, gustura konpondu dut.

—Orain akordatu naiz, beste aterki bat dut hautsia. Nahi duzunean pasako naiz uztera. Badakizu, haize boladek...

—Nahi duzunean. Arrazoi, eguraldi petral hauek...

Gau hartan, Maria etxera iristean, Klarak ez zion galdetuko zergatik hausten zuen etxean azaltzen ziren hainbat aterkietako bat. Ezta lanpernak beharrean arrai zopa jatearen arrazoiari buruz ere. Egia esan, ez zion batera inportako. Ez batak, ez besteak.

\*\*\*\*\*

MARTIN

Martin egun hartan zeharo gustura esnatu zen, egun arraroa izanagatik. Egun arraroa zen, hasteko, goizegi esnatu zelako. Eta, bestalde, elurra ari zuelako. Irailean. Eta elurra normala da irailean, eta abuztuan, eta api-

rilaren leian Islandian. Baina ez bere etxean.

Eta goizago esnatu zenez, dendara goizago joatea pentsatu zuen. Era exajeratuan jantzirik atera zen kalera, beroki eta bufanda artean galduta. Amak, semea hain goiz sumatzean, ohetik hots egin zion. Goxo-goxo zegoelako. Gaur jendeak guardasolak beharko ditu, ez musikeroak.

\*\*\*\*\*

ALFREDO

Alfredo egun hartan ez zen oso gustura esnatu. Izan ere, hotz handiegia egiten zuen bere gusturako. Horregatik, etxean geratu zen, goxo-goxo. Gainera, Mariaren bisita espero zuen. Eta, agian, atrebentziaren bat botako zion. Oso polita zegoela, edo berarekin ezkontzeko edo...

KLARA

Klara, egun hartan, beti bezala esnatu zen. Garbitu eta jantzi ondoren, betiko zeregin garrantzitsuetan murgildu zen: orraztu, apaindu, pintatu, prestatu...

Maria etxetik ateratzean ere ez zion kasurik egin.

MARIA

Mariaren eguna, ordea, beste era konplexuagoan hasi zen. Goiz esnatu zen, oso goiz, horrela, prestatzeko denbora gehiago izateko. Eguna ondo hasteko, esne hotza hartu zuen. Urduri zegoen, benetan urduri. Izan ere, sumatzen zuen egun hura espeziala izango zela.

Esne hotza hartu ostean, soineko dotore bat jantzi zuen, aspaldian jantzi ez zuena. Ezkontza eta bataioetan eta horrelakoetan jantzi ohi zuen; baina aspaldian ez zuen izan horrelako gertakizun pozgarririk. Eta gaur zen jantzeko eguna.

Ilusioz bete zegoen. Izan ere, auskalo zergatik, Mariak erabaki bat hartu zuen. Atrebentziaren bat esango zion Alfredori. Garaia baitzen. Eta aterki loratu hautsia hartu zuen, hau azken aitzakia izatearen esperantzarekin.

\*\*\*\*\*

Maria hil zenean, Klarari eman zioten parte lehenik. Eta Alfredok kalean jakin zuen. Eta Klara isilik geratu zen, isilik eta ezpainak gorritz margotzen. Denek uste-ko zuten Klara bere munduan bizi zela, eta ez zuela ulertuko zer jazotzen zen. Baina Klarak sobera ulertu zuen bere ahizpa txikiarena. Ezin zuen sinistu ahizpa txikia bera baino lehenago joan izana. Sei urte kentzen baitzizkion. Negar egin zuen, negar barrutik, isilean. Negar egin zuen aste eta hilabeteetan eta urteetan.

Alfredo kalean enteratu zen. Eta, enteratu zenean,

soineko gorria jantzi zuela, soineko gorria bera bisitatzeko, soineko gorria kanpoan 5 gradu zero azpitik zeudenean, Alfredok ulertu zuen. Ulertu zuen hura zela eguna, eta Mariak apain-apain jarri nahi izan zuela. Baina 5 gradu zero azpitik gradu asko dira. Gradu asko dira, ez Islandiako emakume batentzat. Baina 77 urteko emakume batentzat, bai. Gradu asko dira. Alfredok ere negar egin zuen, negar altuan, negar asko. Baina, batez ere, damutu egin zen.

\*\*\*\*\*

Kuriosoa da nola askotan gauzak geratzen zaizkigun esateko, gauza handiak eta gauza txikiak, tontakeriak eta tontakeria handiak. Eta nola, gehiegitan, beranduegi konturatzen garen, agian, esateko momentu horiek ez direla betiko, eta denborak ez duela itxaroten.

\*\*\*\*\*

Martin asko harritu zen, Klararen etxe paretik pasatzean, atean, pilatuta, euritako pila bat zuela ikustean. Harritu egin zen. Eta pentsatu zuen Klarak ez zuela gehiago ezer jakin nahi berari buruz. Eta arraroa iruditu zitzaion Klararen jarrera. Izan ere, egunero balkoian egoten zen, bere zain, guardasola dendara zihoan bitartean. Eta ez edozelan. Nabari zen orraztu, apaindu, pintatu eta prestatu egiten zela, egunero. Eta nahiz eta inoiz kalean ikusi ez, Martinek bazekien aterkiak gus-tuko zituela. Etxeko atean utzi bezain laster jasotzen baitzituen.

Eta iraileko egun elurtsu hartan, aterkiak zituen por-

talean. Martinek oparitutako aterkiak. Hori gutxi balitz, ez zen balkoira atera. Eta Martinek pentsatu zuen ez zela orraztu, apaindu, pintatu eta prestatu berarentzat. Eta ez zela gehiago orraztu, apaindu, pintatu eta prestatuko. Martinentzat, bederen.

Bitartean, Klara etxean egongo zen, Martinen existentziaz jabetu ere egin gabe. Eta makur. Oso makur. Aspaldikoz, Klarak azkazalak margotu gabe utzi zituen.

\*\*\*\*\*

Kuriosoa da nola norbaitek beste bati atentzio kolosal jarriko dion, eta beste horrek hirugarren batengatik azkazalak pintatzeari ere utziko dion. . .

\*\*\*\*\*

—Sentitzen dut Mariarena, Alfredo. Badakizu adinak ez duela barkatzen. Ondo konpontzen zineten, ezta?

—Apur bat.

—...

—Eta semea?

—Arraro antzera dabil. Badakizu, adin hauetan txorakeria ugari buruan. Musikokeriei ere utzi die. Atzo bota zuen gordeta zeukan gitarra eskasa, txiki hura. Gu hamalau urterekin ez ginen horrela ibiltzen. . .

\*\*\*\*\*

Eta kuriosoa da nola guardasolak behar ez diren lekue-tan ahazten zaizkigun. Eta behar ditugunean soilik akordatzen garen.

Kuriosoa da. . .

# *Barne sentipenak*

*Garazi Urretabizkaia*

1

Orain hemezortzi urte  
iritsi nintzen mundura;  
beraz, soilik ikastea  
da orain nire ardura.  
Irlanda aldean nabil  
atzerritarren modura  
nolabait hurbildu nahirik  
Ingelesaren zantzura. (bis)  
Baina barnean daramat  
etsipena, arrangura  
zure oroitzapen asko  
baitatokit burura...  
Zure inguruan egon  
hori soilik dut nik gura  
batera idatz dezagun  
bizitzaren partitura. (bis)

2

Bertso batzuk idazteko  
beraz heldu da garaia  
zuanaino iristea  
da gaurkoan nire nahia;  
orri zuriok beteaz  
tristeziaren amaia  
helmugarik ez daukaten  
sentimenduen talaia. (bis)  
Zure begirada eta  
zure hizketa alaia  
hori da nire barnea  
lehertzen duen lehergaia...  
Eiretik Euskadiraino  
hor doa nire epaia  
ene sentimendu ororen  
estreinako bidaia. (bis)

3

Mila kilometrotara  
gaude gaurko egunean  
baina zure presentzia  
beti daramat barnean.  
Mugarik ez duen mundu  
arrotz honen itzalpean  
zure falta sumatzen dut  
mugimendu bakoitzean. (bis)  
Dela goizean jaiki ta  
eskolara joatean  
dela gaua iritsi ta  
ohean barneratzean;  
ezin dut zu gabe bizi  
naiz aitortu beharrean,  
maitasuna handituz doa  
urruntzen zaren heinean (bis)

4

Senti nahi dut zure hatsa  
sentitu zure magala,  
belarrian goxo entzun  
zure hizkera apala,  
oraintxe ere batera  
baldin bageunde bezala;  
hori da indartzen nauen  
sorginkeri ideala. (bis)  
Zure begitan ikusi  
bizitzaren kolosala,  
zurearekin uztartu  
estaltzen nauen azala;  
altzoan naukazunean  
sorgintzen nauzun bezala  
gaur ere zure barneak  
bereganatu nazala. (bis)

5

Sarritan erori ohi naiz  
betikoaren zulora,  
utopikoa ahaztuz  
topikoaren altzora.  
Baina adarrak loratu,  
ta lorak beharko lora  
maitasunak hori dakar  
eta nahi nuke gogora. (bis)  
Sentimendu nahasiak  
orain behera orain gora,  
alaitasuna, negarra  
biak elkarren ondora...  
Bidea jarraitu behar,  
baina nik ez dakit nora,  
barne ezintasun honek  
ez bainarama inora. (bis)

6

Bederatziak pasatxo  
gaua iristen ari da  
mantu beltzak estaliko  
gaitu berriz ere, tira;  
ametsetan joango naiz,  
zure munduaren hegira  
ta niregan biziko dut  
zure begien dirdira. (bis)  
Zu urrun imajinatuz  
ohean hiru-lau bira,  
une oro zure mugimendu  
guztiei begira  
zu ondoan izatea  
hori soilik dut desira  
batera sartu gaitezen  
maitasunaren kabira. (bis)

7

Sentsazio onen geza,  
negar malkoen gazia  
hori da une hauetan  
jorratzen dudana bizia;  
egunen alaia eta  
iluntzeen tristezia:  
bizitza honek dakartzan  
kontrasteen intziria. (bis)  
Gero eta sakonago  
egiten doa zauria,  
nahi ta ezinaren arteko  
borroka da lazgarria;  
hil arte jarraituko dut  
arriskatuaz guzia  
zu bazara amaieran  
jasoko dudana saria (bis)

8

Baina plazara dezadan  
guzti honen azalpena,  
ipini diezaiodan  
ideia orori ordena.  
Nori buruz ari nintzen?  
Nola du berak izena?  
Hor doa ba guztiontzat  
ene erantzun zuzena: (bis)  
Izaera abstraktuko  
putzu sakona, gardena  
sekula existitu den  
printzerik idealena.  
Urteetan irautea  
lortu duen garaipena  
EUSKARA dut jaun-andreok  
maitalerik handiena. (bis)

# *Jardin txikiko txantxangorria*

*Joxemari Lertxundi*

1

Elurra mara-mara ari zan  
goiz batez jun dan neguan,  
txantxangorri bat nola bizi zan  
gure etxe inguruan,  
txori gaixoa ola ote zan  
oroitu nintzan orduan.

2

Ni bereala oetik jaiki  
eta leiora erthenik,  
begira gogor saiatu arren  
ez txoriaren aztarnik,  
balkoi azpian babestuko zan  
ura pentsatu nuan nik.

3

Kanpora irten eta etxe jiran  
beraren billa asita,  
txantxangorria ikusi nuen  
elur artean jausita,  
altxa ezinik zegon gaixoa  
ego muturra autsita.

4

Ta goxo-goxo papargorria  
nik arturikan eskuan,  
etxera jaso ta jarri nuan  
oso toki taxuzkuan,  
an utzi banu etzan biziko  
gaixoa ordu askuan.

5

Eman nizkion sendagai, jaten  
eta etxeke epela,  
gau eta egun zaindutzen nuan  
nere maite bat bezela,  
eskerrikasko nik jaso nuan  
otzez ilko zan bestela.

6

Ni inguratzen ikusitzean  
gordetokira zan sartzen,  
denborarekin bera asi zan  
bildurrik gabe ausartzen,  
azkenerako ikasi zuan  
eskutik jatena artzen.

7

Nik kontu aundiz babestu nuan  
bi illabete osuan,  
azken aldera asia zegon  
goizero kantu goxuan,  
kanporako prest zegola bera  
orixe esan nai zuan.

8

Neguak agur egin orduko  
eldu zan udaberria,  
egoa ere sendaturikan  
nola zedukan jarria,  
pentsatu nuan askatzeko zai  
zegola txantxangorria.

9

Udaberria eldu eta  
sendaturikan autsia,  
eta nik berriz egiña neukan  
egin neioken guzia,  
jardin txikian askatu nuen  
an zegon aren bizia.

10

Txantxangorria an zoriontsu zan  
askatu nuen orduan,  
bikote kide kutun bat ere  
laster zan bere onduan,  
lagun maite bat bezelakorik  
ezer eztago munduan.

11

Nik esne zopak jarri orduko  
biak pozik andik jaten,  
eta ondoren kantu saio bat  
ori jakifia zeukaten,  
pentsatzen nuan ari zirala  
neri eskerrak ematen.

12

Txantxangorriek esker oneko  
mezu gozua zeukaten,  
saiatzen ziran gizakiari  
ikasbidea ematen,  
gizonak ere jakin dezagun  
esker oneko izaten.

13

Nik maitekiro agurtzen zaitut  
biotzeko txantxangorri,  
kabia egiten lagun zaiozu  
zuk bikote kide orri,  
eta kumeak ateratzean  
jardin txikira etorri.

# *Takk fyrir Reykjavík!*

*Jone Iriarte*

Zirkulu Polarraren mugan  
tabernetako kafe luzea dirudi  
Island-ek neguan,  
eguzkia lo geratzen baita  
eta ez da ageri goizero zeruan.  
Izotzeko lurra deritzonean.  
Argia osten,  
negua hozten  
Segundoz segundo sssssssssssss!  
Kuluxka lasaian  
geratzen baita ekia  
iluntasunaren isilean.

Izar lotiaren ametsa  
zeruko oihal koloreanitza,  
itsaso beltzean islatzen zara  
neguko gau polar amaigabea.  
Aurora Boreala  
zurea bai, argi-balada  
kolore hori-berdeko dantza-balantza,  
zeru ilun oskarbiko uhin ibiltaria,  
zu zara iparraldeko argia,  
suzko bolaren olatu ihesia,  
argi-sorginen jolasa  
ikusi zaituenak gordeko zaitu gogoan  
zu baitzara sinistu ezineko fantasia.

Zeru sabaiko begi-nini bixiak  
diz-diz berezia duzue zuek ere  
Island uhartean.  
Ortzian daude izarrak  
gozamen irritan,  
eta keinukari dira ikusten,  
argi bizitan  
iluntasunari bisitan.

Izarrekiko muga urritan  
goialde hauetan,  
zerua ez dela berdina  
hemendik begiratuta,  
hartu behar dut kontuan.

Jaiki hadi, Ekia! Jaiki!  
erregutzen zaio emeki.  
Elurrak estalitako sumendi artetik  
hasi zaigu esnatzen lozorrotik  
eta  
gosearen gosez nekaturik  
gauaren beltza hasi da guztiz jaten etsiturik.

Jósmessa,  
hau da  
neguak egiten duen promesa.

*Gebigarri berezia. Euskaraz gazte 13. literatur lehiaketa*

Amaitu da argi eza!  
Egunak gaua jaten duenean  
eta  
argiaren festa zoroa hastean...  
Hasi gaitezen kantuan:  
Ager hadi Gauerdiko Eguzki! Gaueko iluna bihur  
ezan argi!

Horizontean geratuko da  
goxoa den zure argi-printza,  
apurtuz iluntasunean gertatutako ametsa,  
ikusiz berriro bizidunon beharrezko arnas hatsa.

Kolore biziko txapelak  
dituzte hemengo etxeak,  
hori, urdin eta gorriak...  
ipuinetako kale ta teilatuak,  
alaiak ta lasaiak dira, Reykjavík, zure karririkak.  
Bertatik pasian, haizearen laguntzan,  
bikingoen hizkuntza zaharrear  
Bless! Bless! agurtzen du jendeak.  
Kandela erre usaina tabernetan,

Viking freskoa basoetan,  
gustora dabilta asko dantzan,  
Party! Party! Komdu að dansa!  
gazteen ahoan,  
eta hotz-lurruna ahotik botaz bestek  
barrura sartu ezinik geratu diren kolan.

-Talar pú Islensku? dit batek galdetu  
-Nei fyrirgefðu. Ég er frá Bascalandi! diot azaldu.  
Bikingoen hitz batzuk tartekatuz,  
beraien kontu zaharrek dizkit gogoratu  
eta kasualitatetik haratago  
gertakizun bat dugu arakatu,  
Island-eko lehen hiztegi elebidunak  
Euskara ta Islenskua baitzituen lotu,  
Bi herrialdeetako arrantzaleak  
itsaso zabalean topatuz  
baitziren aspaldi lankidetu.  
Euskaldunak eta Islandesak  
ogibideak zituen elkartu.

## ISLENSKU/EUSKARA HIZTEGITXOA

**Takk fyrir:** Eskerrik asko

**Aurora Boreala:** Aurora boreala ikustea su artifizialak ikustea bezala da (era sinpleenean azaltzeko), baina modu naturalean. Mirari hori ikusteko, ordea, Artikora edo Antartikora joan behar.

**Jósmessa:** Urteko egunik luzeena. San Juan Eguna

**Gauerdiko eguzkia:** Artiko eta Antartiko zirkuluen barnean uda garaian gertatzen den fenomeno: eguzkia etengabe horizontearen gainean dago.

**Bless! Bless!:** Agur!

**Viking:** Bertan asko edaten den zerbeza marka

**Party! Party! Komdu að dansa!:** Festa! Goazen dantzara!

**Talar bu Islensku?:** Islandesa hitz egiten al duzu?

**Nei fyrirgefðu, ég er frá Bascalandi:** Ez barkatu. Ni Euskalduna naiz.

